

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 4735

*EBAZPENA, 2022ko urriaren 21ekoa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, horren bidez, argitara ematen da 2023-2024 ikasturtean ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan baita urtean zehar deitzen den edozein hautatze-prozesutan ere alfabeto-hurrenkera zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza.*

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bitartez, onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia. Agindu horrek ezartzen du berdinketa kasuak konpontzeko irizpidea abizenen eta izenen araberrako hurrenkera alfabetikoa izango dela, eta urteroko zozketa baten bidez ebatziko da zein letratik hasi.

Halaber, letra horrek zehaztu egingo du zein hurrenkeraren arabera aukeratuko duten lanpostua ordezkogaiak, hau da, zozketa horretan ateratzen den letrak zehaztuko du nor izango den lehen ordezkogai ikasturtean zehar deitu daitekeen edozein hautatze-prozesutan.

Zozketa hori 2022ko urriaren 21ean egin zen Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza honen egoitzan. Horregatik guztiarengatik, honako hau

#### EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Argitara ematea «J» letrak zehaztuko duela nork zein hurrenkera izango duen ordezkogaien zerrendan 2023-2024 ikasturtean. Letra hori erabiliko da berdinketa-kasuetan. Era berean, letra horrek zehaztuko du zein hurrenkeran parte hartuko duten izangaiek ikasturtean egiten den beste edozein hautaketa-prozesutan. Horrela, bada, «J» letrak zehaztuko du nor izango den lehenengoa, abizenen eta izenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 21a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,  
BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO.